



## II. ATALA

## BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

## Bermeoko Udala

**Laburpena, Tokiko Gobernu Batzarraren 2024ko maiatzaren 14ko 6 zenbakiko Ebazpenarena, Bermeoko merkataritza-establezimenduetan euskaraz jarritako errotuluak finantzatzeko laguntzen deialdia egiten duena. BDNS (Identif.): 762690.**

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/762690>).

**Lehenengoa. — Onuradunak**

Bermeoko merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-enpresa txikien titularrek eskatu ahal izango dute dirulaguntza.

**Bigarrena. — Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak**

Establezimenduen kanpoko errotulua, autoen errotulazioa, toldoen errotulazioa, bini-loaren errotulazioa.

**Hirugarrena. — Oinarri arautzaileak**

Deialdi hau Bermeoko Udalaren 2024ko aurrekontuetan jasota dago, 2023ko maiatzaren 12ko osoko bilkuran onartutako 2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren barruan. Oinarri horiek, deialdi hau eta eredu normalizatuak Bermeoko Udalaren webgurutik jaitsi ahal izango dira. <http://www.bermeo.eus/1304.html>

**Laugarrena. — Zenbatekoa**

- Zenbatekoa, guztira: 2.000 euro.
- Aurrekontu-partida: 01400-33540-4710000

Establezimenduetan euskaraz jarriko den errotuluaren kostuaren % 75 finantzatuko da, 300 euroko mugarekin.

**Bosgarrena. — Eskabideak aurkezteko epea**

Iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasiko da. Eskabideak egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira.

Bermeon, 2024ko maiatzaren 30ean. — Alkatea, Nadia Nemeš Shomaly